



# Urmendi 0-3: amaiera baten atarian, galera baten aurrean

URMENDI  
1999-2026

85

TRINPART

ALDIZKARIA / 2026ko ekaina / [www.haurtzaroikastola.eus](http://www.haurtzaroikastola.eus)

# Agurra

## Aurkibidea

Agurra	_03
Gai Nagusia	_04
Berrikuntzak	_12
Langileak	_16
Senideak	_20
Urmendi	_24
Hatzak Bete Lan	_26
Argazki-albuma: Ihoteak, Inauteriak, Korrika, Ikastola Eguna	_42
Taldea	_44
Laburrak	_46
Eskolaz Kanpokoak	_50
Oiartzo	_52

## TXINPART

Haurtzaro Ikastola  
Elorrondo z/g - 20180 Oiartzun  
T.: 943 49 16 59  
haurtzaro@ikastola.eus  
LG: SS-129 / 2001

DISEINUA ETA MAKETAZIOA  
DIXIDU Diseinu Grafikoa

Kaixo, guztioi!

Bapo! Bukatu da 2025-2026 ikasturtea! Bainujantziak, sandaliak janzten hasi gara dagoeneko eta beroak uxatu ditu euriteak eta hotzak.

Ongi joan da aurtengo ikasturtea ere, lankidetzan aritu gara etxe barruan, baita herriarekin ere, herria eginez. Atera gara herriko kaleetan barrena korrika, kantuan, irakurtzera, esperimantatzera, elkarrizketak egitera, erreka garbitzera, aitona-amonak gozatzera, udal foroetara eta lanerako mahaietan eragitera. Jarri ditugu doinu alaiak eta bertsoak, salatu ditugu injustiziak eta gaizki egindakoak. Aurtengoa ere anitza izan da, denetarako eman du!

Aurtengo bizikidetzak egunean, elkarrekin bizitzen ikasten jarraitzeko aukera izan genuen. Kideze dinamiketan eta talde-jardueretan parte hartuz, elkarlana, errespetua, empatia eta konfiantza bezalako balioak landu genituen, besteak beste. Ikusi genuen desberdintasunek aberastu egiten gaituztela eta elkarri entzuteak eta zaintzeak gure komunitatea sendoago egiten duela.

Aurtengo ihoteak zoroak izan ziren eta inauteriak koloretsuak. Bikaina izan zen ikuskizuna eguraldiak lagundu ez bazuen ere. Saiakera handia egin genuen guztiok eguneko koloreak ez zitezen gris-ilunak izan.

Erronka berriak izan ditugu: zuen gurasoak hezten jarraitzea eta haiekin gu ere janztea, Petra Lekuonako egoiliarren bizitza-esperientzia jasotzea, kooperazioan jarduten ikastea, irakurzaletasuna sustatzeko irakurgaiak gomendatzea eta, guztiak elkarrekin, egunetik egunera gozaten jarraitzea.

Orain, udaraz gozatzea dagokigu guztioi, atsedean hartzea, indarrak berrituta eta ilusioz beteta itzultzea. Hirui hilabete barru espero zaituztegu berriz ere, maila eta gela berrietan.

Goza itzazue oporrak!



# Urmendi 0-3: amaiera baten atarian, galera baten aurrean


**Badira isilean eraikitzen diren altxorrak. Eguneroko lan txikian, zaintzan, harremanetan eta konfiantzan oinarrituta sortzen diren horietakoak. Urmendi 0-3 proiektua halakoa izan da: urteetan zehar, komunitate oso baten konpromisoz eta ikuspegi pedagogiko aurreratu batez eraikitako erreferente bat, Oiartzunen, Euskal Herrian zein Europan.**

Urmendi 0-3 proiektuaren balioa ulertzeko, nahikoa litzateke Europako erreferenteekin alderatzea: Estoniako haurreskolen eredu aurreratuen parekoa izan da, kalitate pedagogikoan, hezkuntza ikuspegiaren eta komunitatearen inplikazioan. Baina, paradoxikoki, ez da urrutira begiratu behar izan halako eredu aurkitzeko: hemen bertan eraiki da. Urmendirekin batera bidea eginez, Eusko Jaurlaritzaren Haur Hezkuntzako dekretua zorrotz eta osotasunean betetzen duen EAEko ikastola bakarra izan da Haurtzaro Ikastola, Urmendi 0-3 proiektuaren bidez. Horrek are nabarmenago egiten du galera: kanpoko eredu bilatu beharrean, etxean bertan genuen erreferentea galdu baitugu.

Urmendi 0-3 ez da edozein proiektu izan: gaur egun diskurtso politikoan etengabe aldarrikatzen den eskola eredu komunitarioaren adibide bizia izan da, etorkizunera begirako aukera. Hezkuntza Legeak eta hainbat alderdi politikoek maiz aipatzen dituzten printzipioak –komunitatearen inplikazioa, familien parte-hartze aktiboa, haurren garapen integrala eta tokiko errotzea– eguneroko praktikan txertatuta izan ditu. Ez zen etorkizuneko promesa bat, baizik eta orainaldian funtzionatzen zuen errealitate bat. Hori da, hain zuzen ere, paradoxarik mingarriena: aldarrikatzen den eredu bera izanik, mantendu eta indartu beharrean, galtzen utzi den proiektu bat dela.


**Gaur, ordea, amaieraren atarian gaude.**

Proiektu honek, gainera, Haurtzaro Ikastolarentzat erronka handia ere ekarri du, konpromisoz eta sinesmen pedagogikoz hartutako erabakien ondorioz. Urmendi 0-3 proiektuan sinesten zuelako, ikastolak uko egin zien bere gain izan zitzakeen 2 urteko gelen baimenei, horiek Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren esku uzteko. Erabaki horrek erakusten du proiektuarekiko benetako apustua eta ikuspegi komunitarioa lehenesteko borondatea, norberaren interesak bigarren planoan utzita. Hori ere bada gaur galtzeko zorian dagoen ondarearen parte.



Oiartzungo Udalak eta Haurtzaro Ikastolak elkarlanean sortu zuten proiektu hau ez da ohiko haur eskola bat izan. Hezkuntza ulertzeko modu bat izan da: haurra erdigunean jarri duena, komunitatea sare bihurtu duena eta zaintza balio politiko eta sozial gisa aitortu duena.

Hezkuntza Sailaren dirulaguntza kentzeko erabakiak kolpe zuzena eman dio urte luzez eraikitako 0-3 hezkuntza proiektuari, eta administrazioaren utzikeriak desagerpenera bultzatu du. Erabaki politiko horren ondorioz, komunitateak egindako ahalegina eta ikastolak sustatutako hezkuntza eredu propioa baztertuak izan dira, 0-2 zikloa Hezkuntza Sailaren esku uztera behartuz. Egoera honek agerian utzi du ikastolaren hurrengo erronka nagusia 2 urteko bi lerroentzako hezkuntza baimenak eskuratzea izango dela. Hala ere, aurreikusi bezala, bidea ez da erraza izaten ari, Hezkuntza Sailak oztopoz beteriko prozesua ezarriko duelako beste behin ere. Orain arte erakutsitako jarrerak argi uzten du administrazioak ez duela benetako borondaterik ikastolen egitasmoak sendotzeko; alderantziz, trabak jarri, prozedurak luzatu eta hezkuntza komunitate oso baten etorkizuna etengabeko ziurgabetasunean mantentzen du. Hala



eta guztiz ere, Haurtzaro Ikastolak argi dauka ezin duela amore eman: familien beharrak, euskararen transmisioa eta herritik sortutako hezkuntza eredu defenatzea ezinbesteko konpromisoa duelako.

### **Une honetan galderak besterik ez zaizkigu bururatzten:**

Zer galtzen da Urmendi bezalako proiektu bat desagertzen denean? Ez da soilik zerbitzu bat galtzen. Ez da soilik plaza kopuru bat gutxitzen. Galtzen dena askoz sakonagoa da: eraiki den jakintza kolektiboa, hezitzaileen eta familien arteko konfiantza-sarea, eta haurrek bizi izan duten espazio segurua eta aberasgarria. Galtzen da denborarekin pausoz pauso landutako eredu, non erritmoak ez diren inposatzen, baizik eta entzuten.

Baina amaiera bakoitzak arrasto bat uzten du. Eta kasu honetan, arrasto hori komunitate oso baten memorian geratuko da. Izan ere, Urmendi ez da soilik iraganeko esperientzia bat. Aukera bat izan da. Eta aukerak galtzen direnean, etorkizuna ere apur bat estutzen da.



# Basoak kontatua

**Aiora Madariaga eta Ibintza Irigorri**  
Urmendi Haur Eskolako langileak

Txantxangorria txori txikia da tamainaz, bularralde gorrikoa eta kantari aparta. Gau eta egun, udaberri nahiz negu kantuan aritzen dena, eta bere kantuan estrofa berrien eta desberdinen sortzaile. Ausarta, neguko denboraleetan ere basoa jakin-minez begiratu eta bertara egokitzen badakiena, eta inguratzen duen guztiari balioa ematen diona. Zaintzailea, gertukoa, konfiantzazkoa, eta bere tokia gogotsu defendatzen duena. Egarri denean, inguruko iturburutan zein erreketan ur fresko eta garbitik edaten duena.

Udaberria da. Kabia egiteko txoko aproposa bilatzeko garaia. Basoan badira halakoak, eta oraingoan, haritzaren sustrai artekoa aukeratu du. Hor dabil hegan, hegaldi bakoitzean basoko adaxkarik aproposenak, lumarik gozoenak bilatuz, ilusioz eta pazientziaz betetako kabia eraikitzen. Denbora hartzen du. Kanpoko aldea goroldio eta adaxka finez egin nahi du, kabia sendoa izan dadin, nolana ez urratzeko. Barruko aldea, berriz, lumentz eta animalia ilez, bertan egongo diren arrautzak eta ondorengo kumeak gozo eta bero haz daitezen.

Eraiki du kabia, eta errun ditu arrautzak. 3 arrautza, puntutxo gorriz betetako hiru arrautza. Horrelakoak baitira txantxangorriaren arrautza txuriak, puntutxo gorridunak. Poza sentitzen

du, indarra, momentuaren plazera eta satisfazioa. Merezitako esfortzuaren ondorena.

Berak eraikitako kabian bizitza bera errun du: arnasa, zaintza, babesa, goxotasuna, malgutasuna, indarra, ilusioa, jakintza, esfortzua, errespetua, atxikimendua, ... Zaintzaren ardura eta ilusioa du orain. Berotasuna, babesa eta akonpainamendurako nahia eta sena.

Baina bat-batean, kukuaren kantu harroak erne jarri du txantxangorria. Kukua handia da tamainaz, eta boteredun sentitzen da handitasun horretatik. Mehatxatzen abila da, eta gogor eginez, txantxangorria kabiatik erraz urrunarazi du.

Une horretan babesik gabe geratutako kabiaren jabe egin da, eta segundo gutxi nahikoak izan ditu txantxangorriaren arrautza bat kabiatik bota, eta haren lekuan berea jartzeko.

Arrautza baten faltan, jada kabia ez da kabi.

Basoa esnatu baino lehen jaioa da jada kukukumea. Basoa esnatu aurretik; jaiotzen lehena, beti lehenengoa izan nahiaren grinaz eta ezinegonaz. Gose da, eta txantxangorri ama harentzako janari bila abiatu da, kuku-ama ezkutuan berari begira erne duela jakinda. Momentu hori aprobetxatu du kukukumeak, kabiako beste bi arrautzak bere bizkar gainean hartu, eta kabiatik kanpora botatzeko. Kukukumeak betetzen du orain kabia oso-osorik, harrotasunak ematen dion handitasun horrekin, kuku amarekiko duen konplizitate horrekin.

Kukuak ez du basoan bere kabia eraiki nahi izan, bai ordea, txantxangorriak egindako lanaz baliatu, bere

intereserako erabili, eta gainera, zapuztu. Txantxangorria berea sentitzen ez duen kabia zaintzera derrigortu du, berea ez duen arrautza berotzera, eta berea ez duen kumea elikatzera; han baitago kukua, zuhaitzaren goi-goian, egonean, goitik behera begira, txantxangorriak kukukumea hazi dezan zelatan, erne. Nahi zuen hori lortu izanarekin oso harro, eta bihozgabe.

Baina guztiaren gaintetik basoak ongi daki Txantxangorriak basoa nola maite duen. Badaki basoa nola zaintzen eta

babesten duen. Badaki aurrerantzean ere ur berri eta freskotik edango duten Txantxangorriak izan, izango direla.

Eskerrik asko, zuri, Txantxangorri, kabia egiteko hautua hartu eta fintasun osoz, ardura haundiz, hura eraikitzeagatik. Eskerrik asko kabia udaberriz udaberri zaindu eta indartu duzuen beste txantxangorri guztiei. Eskerrik asko, kabia babesten saiatu zareten basoko izaki guztiei. Eta eskerrik asko, nola ez, txantxangorrikumeei; jasotako kantutik abestu dezazuela zuek ere!



URMENDI  
1999-2026

Ilustrazioa:  
**Udane Ansa**

01/GAI NAGUSIA

# Elkar\_ bizi\_ tza

# Elkarrekin kantatzea baino askoz gehiago da

Kristina Boan Martikorena  
Haurtzaro Ikastolako zuzendaria

Sarritan entzuten dugu elkarbizitza hitza ikastolan, familian, herrian zein gizartean. Askotan, ordea, azaleko esanahi batekin lotzen dugu: elkarrekin egotea, elkarrekin kantatzea eta jarduerak partekatzea. Baina benetan hori al da elkarbizitza? Ez al da askoz sakonagoa eta konplexuagoa?

Elkarbizitza ez da soilik espazio bat partekatzea. Ez da nahikoa toki berean egotea, ezta elkarrekin jarduera batzuk egitea ere. Benetako elkarbizitza da bestea kontuan hartzen dugunean, besteari bere lekua aitortzen diogunean eta, batez ere, arnasten uzten diogunean. Hau da, norberaren askatasuna bestearen askatasunarekin orekatzea.

Gizartean bizitzeak etengabeko harremanak eskatzen ditu: hitzak, isiluneak, keinuak eta erabakiak.

Horietan guztietan agertzen da benetako elkarbizitza. Bestea zapaltzen dugunean —hitz batekin, jarrera batekin edo ekintza batekin— elkarbizitza hausten hasten da.

Elkarbizitza ere bada bestearen ekarpena aitortzea eta balioestea. Talde batean bizi garenean, bakoitzak bere alea jartzen du, bere gaitasun eta ahaleginen arabera, eta horrek osatzen du benetako komunitatea. Hala ere, sarritan gertatzen da bestearen borondatea ez errespetatzea, eta are okerrago, ahotsa edo ekarpena zapaltzea. Elkarbizitza osasuntsuak kontrakoa eskatzen du: kide bakoitzaren lana onartu, errespetatu eta bere lekua bermatzea.

Elkarrekin aurrera egiteko ezinbestekoa da bakoitzak arnasa hartzeko eta bere ekarpena egiteko aukera izatea, nahasian edo elkarrekin aritu gabe.

Horregatik, elkarbizitza ez da pasiboa; ez da “gertatzen den zerbait”. Eraiki egiten da, egunero eta guztion artean. Errespetua da oinarria, baina ez da nahikoa. Entzutea, ulertzen saiatzea eta desberdintasuna onartzea ezinbestekoak dira. Izan ere, ez gara guztiok berdinak: bakoitzak bere historia, pentsaera, ibilbidea, identitatea eta sentitzeko modua ditu.

Elkarbizitza osasuntsuak aniztasuna aberastasun bihurtzen du, ez arazo.

# Pausoz pauso elkarbizitza positiborantz

Askotan, elkarbizitza gatazkarik gabea dela pentsatzen dugu. Baina gatazkarik saihestea ez da beti konponbidea. Gatazkarik naturalak dira, eta behar bezala kudeatzen direnean, hazteko aukera bihurtzen dira. Gakoa ez da gatazkarik ez izatea, baizik eta nola erantzuten diegun: errespetuz, elkarrizketaren bidez eta bestearen ikuspegia kontuan hartuta.

“Arnasten uztea” irudi indartsua da elkarbizitza ulertzeko. Norbaitek arnasa hartu ahal izateko, espazioa behar du, presiorik gabea. Berdin gertatzen da pertsonen artean: bakoitzak bere lekua behar du, bere erritmoa, bere ahotsa. Bestea kontrolatzea, epaitzea edo etengabe erasotzea arnasa kentzea da. Elkarbizitza osasuntsuak, ordea, askatasuna ematen du, konfiantza sortzen du eta segurtasuna eskaintzen du.



Elkarbizitza ulertzeko orduan, garrantzitsua da ezezkoa jasotzen ikastea ere. Ez dugu beti nahi duguna lortuko, ezta gure ideiak edo proposamenak onartzea erdietsiko ere, eta hori onartzea heldutasunaren eta errespetuaren seinale da. Ezezkoa ez da eraso bat, baizik eta beste pertsonaren ikuspegia, beharra edo muga adierazteko modu legitimoa. Ezezkoak harremanak sendotzen ditu, bestearen espazioa eta erabakiak errespetatzen ditugulako.

Azken batean, ezezkoa onartzea ere bada bestea arnasten uztea. Ikastola eta familia dira elkarbizitza ikasteko lehenengo espazioak. Bertan ikasten dugu nola jokatu besteekin, nola konpondu desadostasunak eta nola errespetatu mugak. Horregatik, hezkuntzak paper garrantzitsua du: ez bakarrik eduki akademikoak transmititzean, baizik eta balioak lantzean. Enpatia, elkartasuna eta erantzukizuna bezalako balioak ezinbestekoak dira elkarbizitza sendotzeko.

Azken batean, elkarbizitza ez da helburu bat, baizik eta bide bat. Ez da behin lortzen den zerbait, etengabe zaindu eta berritu behar den prozesua baizik. Elkarrekin kantatzea ederra da, baina ez da nahikoa. Elkarbizitza benetakoa da elkar entzuten dugunean, elkar errespetatzen dugunean eta, batez ere, elkarri arnasa hartzen uzten diogunean.

# Irakurketa

## Hautzaro ikastolan

Hautzaro Ikastolan Irakurketa talde bat dugu, hiru etapetako bost irakaslek osatua. Momentu honetan, besteak beste, Irakurketa Plana egokitzen ari gara, zenbait ekintza txertatu, egokitu eta irakurzaletasuna sustatzeko martxan jarri ditugun hainbat proiekturi forma emateko.



### Irakurketa Plana

Irakurketa plana dokumentu egonkor, irekia eta malgua da. Egonkorra da, ikastolan irakurketarekin lotuta egiten diren ekintza guztiak biltzen direlako, hau da, ikasleak egin beharreko irakurketa ibilbidea finkatzen delako. Baina, era berean, irekia eta malgua da, askotariko ekintzak gehitzeko aukera ematen duelako, eta ebaluaziotik abiatuta, aldatu eta berregokitu egin daitekeelako.

### Irakurketaren ardatzak

Irakurle gaitua sortzeko bidean, Irakurketa Planak hiru ardatz edo zutabe ditu, eta, hiru ardatzak elkarri josita daudenez, bat hobetzen bada, gainerakoak ere hobetu egiten dira.

. **Irakurtzen ikasi:** irakurketarako ezinbestekoa da, alde batetik, hitza deskodetzea; eta bestetik, esanahia identifikatzea edo ulertzea. Horretan trebatzeko, adin txikienetatik ahalik eta testu aniztasun handienarekin lan egin behar da, haien funtzioei, formari eta zentzuari buruz hausnartzeko. Ikasle batek, modu integralean garatzeko, ezinbestekoa du irakurtzen ikastea.

. **Ikasteko irakurri:** ikasteko bide edo tresna gisa irakurtzea. Irakurmena edo irakurriaren ulermena prozesu gisa ulertu behar da, eta prozesu horretan irakurleak ezagutzak, trebetasunak, eta teknikak erabiltzen ditu, irakurtzen duenaren esanahia barneratzeko. Ardatz honetan, hiztegia aberastea, irakurriaren ulermena eta irakurketa eraginkorra deituriko alderdiak kokatzen dira.

. **Irakurtzeko ohitura eta irakurzaletasuna:** ikaslearengan irakurtzeko ohitura eta zaletasuna eragitea. Zaletasunak gozamen hutsagatik egindako irakurketa piztea dakar.

Azken batean, garuna egunero irakurtzera ohitzen bada, abiadura errazten da eta aipatutako irakurketa estrategia eta teknika guztiak hobetuko dira. Ikaslea irakurle bihurtuko da motibazio intrinsekoagatik, edota gozamen hutsagatik, irakurtzen duenean batez ere, azken buruan, irakurtzea gustuko duelako. Hala ere, irakurtzeko ohiturak ez du irakurzaletasuna bermatzen, horregatik, irakurzaletasuna ikastetxean, familiarekin eta ingurunearekin batera partekatzea ezinbestekoa da.

### **Irakurketari eskaintzen zaion denbora**

Ardatz horiek guztiak lantzeko, behar-beharrezkoa da irakurketari denbora eskaintzea eta ikastolan etapa guztietan ahalegina egiten ari gara irakurketari duen garrantzia emateko.

. **HHn** ikasturtean zehar lantzen ditugun gai guztiak liburu batekin hasten ditugu. Liburuek gaiak kokatzen laguntzen diote haurrari, bere emozioak lantzen, errealitatea ulertzen... egunerokotasuneko oinarriak baitira. Horrez gain, guneetan dituzten liburutegiko liburuez gozatzeko aukera ere badute ikasleek. Bestalde, astero liburu txokora joaten gara ikasleekin, eta bertan ordu erdiko saioa egiten dugu.

. **LHn**, 1. mailatik 4. mailara, ordu erdiko lau tarte ditugu astero, eta horietako batean Liburu Txokora joaten gara. Gainontzekoetan gelako liburutegiko, JUUL txokoko edota etxetik ekarritako liburuak irakurtzen ditugu.

LHko azken zikloan, aldiz, saio bakarra izaten dugu, baina liburutegi propioa ere badugu eta beste dinamika bat dugu liburuak etxerako hartu eta itzultzeko, elkarri gomendioak egiteko... Batzuetan saioak bideratuagoak izaten dira eta besteetan askeagoak, baina modu batera edo bestera, bitartekariaren lana oso garrantzitsua da ikasleak motibatzen eta trebatzen.

. **DBHko** etapa IKASTEKO IRAKURRI ardatzari oso loturik dago; eta ikasleek arlo guztietan irakurtzen dituzte mota askotako testuak ikasteko baliabide gisa. Hori dela eta, esan dezakegu, arlo guztietan eskaintzen zaiola denbora irakurketari.



Irakurketa plana dokumentu egonkor, irekia eta malgua da. Egonkorra da, ikastolan irakurketarekin lotuta egiten diren ekintza guztiak biltzen direlako, hau da, ikasleak egin beharreko irakurketa ibilbidea finkatzen delako.



## 02/BERRIKUNTZAK

Bestalde, etxeko saioaren barnean kokatzen da irakurketa. LHko bideari jarraituz, egunero 30 minutu irakurtzeko eskatzen zaie ikasleei, eta horretaz gain, ekintza xumeak egiten ahalegintzen gara irakurzaletasuna bultzatzeko.

### Irakurzaletasuna bultzatzeko proiektuak

Irakurketari eskaintzen zaion denboraz gain, asko dira irakurzaletasuna sustatzeko helburuarekin ikastolan egiten ditugun proiektuak. Ibilbide luzea dute batzuek eta martxan jarri berriak dira besteak:

. **Liburu txokoko gomendioak:** Haurtzaro ikastolak inbertsio handia egiten du liburutegiak hornitzeko, eta hamabostean behin, liburu berri bat aurkezten dugu atrilean. Liburuak aukeratzeko hainbat irizpide izaten ditugu kontuan: kalitatea, genero ikuspegia, liburuaren aniztasuna, euskaraz sortuak edo itzuliak diren... Galtzagorri Elkartearen gomendio zerrendak erreferentzia garrantzitsua dira guretzat.

. **Juul kanpaina:** irakurzaletasuna bultzatzeko, Nafarroako Ikastolek bultzatutako proiektua da. Bertan, Euskal Herriko ikastolek hartzen dute parte eta irakurketarekin lotutako ekintza ugari egiteaz gain, hauteskunde literarioak egiten dira, Liburuaren Nazioarteko Egunaren bueltan. Hauteskunde horietan, azken bost urteetan argitaratutako liburu eta ilustratzaile gustukoena bozkatzen dute ikasleek. Gurean, LH3tik DBH4ra bitarteko ikasleek hartzen dute parte, eta oso arrakastatsua izaten da.

. **Bidaia egunkaria:** proiektu berria da. Ikasle bakoitzak bidaia koadernoarekin egingo du Ikastolako irakurle ibilbide osoa. Adinaren arabera egokitutako proposamenak lantzen dituzte eta urtez urte bidaia osatzen joango dira.

. **Ipuin kuttuna:** HHn martxan jarri dugun proiektua da. Ikasleek beraientzat maitea edota kuttuna den liburua ekartzen dute ikastolara eta liburuari buruzko galderak egiten dizkiegu: zergatik aukeratu duten, bakarrik edo gurasoekin aukeratu duten... Ondoren, irakurri eta gelan uzten dute egun batzuetan, nahi izanez gero.

. **Gelako liburu kuttunak:** LHko eta DBHko ikasleek etxeko liburu kuttun bat ekartzen dute gelara, eta denon artean, gelako liburutegi moduko bat osatzen dugu. Bertatik nornahik har ditzake liburuak. Ikasleek liburua irakurtzen dutenean, itzuli egiten dute eta balorazio txiki bat egiteko eskatzen zaie. Horrela, beren arteko liburu trukea bultzatzea da helburua.





Gustura ari gara irakurketa eta irakurzaletasuna indartzeko lanean, horrek guztiak ikasleen gaitasunak hobetu eta bizitzak edertzeko balioko duela sinetsita.

. **Udal bibliotekara bisita:** HHko eta LHko ikasleak udal liburutegira joaten gara tarteka, behar ditugun liburuak hartzera edo bertan saio txiki bat egitera. Ikasleek liburutegira joateko ohitura hartzea da helburuetako bat.

. **Motxila ibiltaria:** LH4. mailan martxan jarri dugun proiektua da. Astero ikasle batek eramaten du motxila etxera, eta bertan 6 liburu ditu, astean zehar gozatzeko. Horrez gain, sentitu edo pentsatutakoa idazteko koaderno bat ere eramaten dute, elkarri gomendioak egin edo bizipenak partekatzeko.

. **Familien foroa:** irakasleon eta gurasoen arteko elkarlana ezinbestekoa da irakurzaletasuna sustatzeko. Gurasoekin izaten ditugun ohiko harreman bidez gain, interesa duten gurasoekin foro bat sortu dugu, irakurzaletasunarekin lotutako ekintza eta proiektuak pentsatzeko eta gauzatzeko.

. **Argi hizkiak:** ikasturte honetan martxan jarritako ekimena da. Ikastolako asteroko buletinean, bi libururen gomendioa egiten dugu, besteak beste. Gomendioak etapaka sailkatzen ditugu: HH, LH, DBH eta helduak. Tarteka irakurketarekin lotutako berriak zabaltzeko ere baliatzen dugu txoko hori.

. **Sarrera nagusiko truke txokoa:** ikastolako sarrera nagusia berritu dugu, eta guraso forotik ateratako proposamena martxan jarri dugu bertan, truke txokoa. Espazio honetan, edonork liburu bat utz dezake eta beste bat hartu, liburuei bizi berri bat emanez.

**Irakurketa lan taldea**

### [Liburu gomendioak:](https://haurtzaroikastola.eu/?mailpoet_router&end-point=view_in_browser&action=view&data=WzMzMiwN2NiZmFhNzU0ZGQ5liwwLDAsMCwxXQ)

[https://haurtzaroikastola.eu/?mailpoet\\_router&end-point=view\\_in\\_browser&action=view&data=WzMzMiwN2NiZmFhNzU0ZGQ5liwwLDAsMCwxXQ](https://haurtzaroikastola.eu/?mailpoet_router&end-point=view_in_browser&action=view&data=WzMzMiwN2NiZmFhNzU0ZGQ5liwwLDAsMCwxXQ)



# Batzuek kaixo, besteak agur!

1990. urtean hasi zuen Haurtzaro Ikastolan administrari ibilbidea Agustin Vital Mendiorozek. Aurten, bere 37. urtean, atsedent hartzea pentsatu du.

Langile amorratu eta konprometitua, ekinez aritua eta saiatua.

Izatez eta egitez nafarra, baina Oiartzungo herriak harreran hartua. Gure proiektuko guraso ere izan da.

Erabaki honek ekarri du Haurtzaro Ikastolako administrazio departamentua berrantolatu behar izatea.

Horrela, Agustinek utzitakoa Oihana Irastorza Gonzalezek osatuko du, Kontseilu Errektoreak hala erabakita. Oihana Haurtzaro Ikastolako... promozioiko ikasle ohia da eta, gaur egun, LHko eta DBHko guraso.

Administrari berriaren laguntzaile lanetan, berriz, Oihanaren ordezt, Amaia Bergaretxe .... hasi da. LKSk ehundaka hautagairen artean hautaketa egin ondotik, Kontseilu Errektoreak bera aukeratu zuen posturako.

Zorte on hiruroi!



# Lideri, Eskerrik Asko!



Urtero egin ohi dugun moduan, langileen erretirorik bada, *Txinpart!* aldizkariaren urteko bigarren zenbakian omenaldi txiki bat eskaini ohi diogu.

Lerro hauen bidez, gure etxe honekin lan harremana amaitzen dutenei "**gero arte**" esan nahi diegu; izan ere, ikastolan elkartuta eginten dugun omenaldi xumeaz gain, hitz hauek ere gure eskertza eta maitasuna adierazteko modua dira.

Lan-harremana amaitzen da, ez ordea bestelakoa. Gure ondoan jarraitzen baitute gehienek: sostengatzen, babesten, bidelagun.

Aurten, bereziki, eskerrak eman nahi dizkiogu, bereziki, Lide Martiarena Labandibarri, Haurtzaro Ikastolari urte hauetan guztietan emandako guztiagatik.

Lidek 19.. hasi zuen Haurtzaro Ikastolarekin zuen lotura, x urte zituela matrikulatu baitzen.

Lehen promozioiko ikaslea izan zen, horregatik, ikastolaren sorreratik gaur egunera arte hertisiki lotuta egon da gure hezkuntza proiektuarekin.

Urte batzuk geroago, .. urte zituela, irakasle lanetan hasi zen. 40 urteko ibilibidea egin du irakaskuntzan, eta denak Haurtzaro Ikastolan. Denbora horretan egiteko modu oso anitzak, metodologia ugari ezagutu ditu, baina egin duen horretan, beti bizitza eta bihotza jarri ditu.

Horrez gain, gure komunitateko guraso ere izan da, eta horrek are estuago lotu du ikastolako egunerokoarekin.

Baina, esan bezala, ez dizugu agur esango, laster arte baizik. Goza ezazu datorkizun bizitzaren aro berriaz merezi bezala.

# Hurtzaro Loriak Taldeak

2026 urteko martxoaren 13an, ostiralez, Hurtzaroko Langile Jubilatu taldeak bazkari baten inguruan biltze bat egin zuen Urnietako Altuna Sagardotegian. Multzo ederra bildu ginen: eguraldi ona, giro ederra eta elkarren presentziaz gozatzeko aukera. Aurrez deialdia telefonoz eta korreoz bidali zitzaizen guztiei.

Argazkiak, solas-elkarrizketa gozoak... WhatsApp taldea osatzea pentsatu zen, guztiak partekatze aldera eta ondoren etor zitezkeen antzeko ekitaldietarako komunikazio gune moduan. Nola deitu, baina?

Hurtzaroko Loriak Taldea, hots HLT izan zen errazen zabaldu zena. Eta horrela, argazki, bertso pare bat, esker hitz... artean agurtu genuen ekitaldia.

Hauk dira partekatutako bertsoak eta zenbait argazki. Bizitzarako Hezkuntza egikaritzen baitu Hurtzaro Ikastolak, baita bere jubilatuekin. Ez uste ofizioa hain erraz ahaztu dugunik... Eta, badakigu orain jardunean zabilzatenen artean bazaudetela jubilaziora pasako zaretenak: ez kezkatu, besoak zabal-zabal hartuko zaituztegu Hurtzaroko Loriak Taldean.



## Haurtzaro Loriak

Bi mila eta hogeitaseiko  
martxoaren hamahirua  
paregabea gertatu zaigu  
eguna eta girua.  
Ederki jan ta ederki edan...  
hegan airian mirua:  
Haurtzarok martxan gaurtik aurrera  
LORIAZKO solairua.

“Loria zaharrak” izango gara  
baldin batzun arabera,  
inork ez pentsa erreza denik  
biltzea gure taldera.  
Langile latzak izandakoak,  
Bizitzan goaz aurrera...  
Zahartzera \*pozak elkartu gaitu\*,  
hortik kontnuak atera.



# KULTURARTEKOTASUNA

Beste herrialde batetik familia berri bat gurera etortzen denean, berehala burura datorkigun hitza inongo zalantzarik gabe HIZKUNTZA da. Baina ez luke hala behar.

Batzuetan iruditzen zaigu oztopo edo zailtasun bakarra hizkuntza dela, eta bada, noski, kanpotik gurera etorri diren familiek argi adierazi dute zailtasun handienetako bat hizkuntza dela, oso zaila egiten zaiela euskaraz hizketan ari den talde batean txertatu eta parte hartzea. Eta arrazoi dute. Eta arrazoi horrexegatik jarri genuen Telegram aplikazioa martxan.


Baina denok argi dugu ez dela nahikoa. Alde batetik batuaz idazten ez badugu, itzulpena ez du behar

bezala egiten, beraz, askotan talde horietan aipatzen dena ezin dute ulertu eta elkarrizketatik kanpo sentitzen dira, eta bestetik, gure kulturaren, gure ohituretan, gure ikastolako eguneroko martxan txertatzeko beharra dute eta honen gakoa/irtenbidea ez da Telegram.

Elkar ezagutu behar dugu, elkarren berri izan, norberaren beharrak eta zailtasunak adierazi...

Horregatik kafe tertulia bat antolatu genuen atzerritik gurera etorri diren familia eta Bidelagunekin.

Giro oso atseginean hainbat konturi buruz hitz egin genuen eta aipagarrienak hauxek izan ziren:



Ez da nahikoa hizkuntza ulertzea; elkar ezagutu, elkarren berri izan eta norberaren beharrak zein zailtasunak partekatzea da benetako integrazioaren gakoa.

FAMILIAK	BIDELAGUNAK
<b>ZAILTASUNAK</b>	
<p>Hizkuntza: taldean txertatzeko, etxerako lanetan laguntzeko eta Telegramen erabilera egokia.</p> <p>Festak: zer ospatzen da? Nola ospatzen da? Zer bait berezia behar dut ospakizun horretarako?</p>	<p>Nola jarri harremanetan familiekin?</p> <p>Zer behar dituzte eta zer eskaini diezaieket?</p> <p>Zer espero dute nigandik?</p>
<b>BEHARRAK</b>	
<p>lanetan laguntzeko eta Telegramen erabilera egokia.</p> <p>Festak: zer ospatzen da? Nola ospatzen da? Zer bait berezia behar dut ospakizun horretarako?</p>	<p>Festak, irteerak, zalantzak, adierazpen garrantzitsuak... adierazi.</p> <p>Taldeko elkarrizketaren laburpena egin.</p>
<b>ZAILTASUNAK</b>	
<p>Parte hartzen dugunean gure seme-alabei nabaritzen zaie eta garrantzitsua da, gurasoek ikastolako jaialdietan dugun parte-hartzearen informazioa hizkuntza ezberdinetan zabaltzeko konpromisoa hartu da denok zer bait eskaini dezakegulako.</p>	

**Laburtuz, hauexek ditugu erronka nagusiak:**

- . Funtzionamendu orokorreko txostena.
- . Festak: ikasturte hasieran egutegia eta informazioa helarazi.
- . Gurasoen parte-hartzea ikastolako jaialdietan informazioa hizkuntza ezberdinetan zabaldu.
- . Euskara ikastaroak.
- . Bidelagunaren informazioa zabaldu eta beharrak adierazi.

Beraz, argi dugu hizkuntzak ikaragarrizko garrantzia duela, baina baita ikasturteko dinamikan burutzen diren ekintzei buruzko informazioaren zabalpenak, ikastolaren egitura ulertu eta kezka bat dugunean norengana jo jakiteak, beraien eskubide eta betebeharren ezagutzak... ez daukagu beraien larruan jartzerik, baina arreta jartzen badiegu eta beraiek entzunak sentitzen badira traba asko desagerrarazi ditzakegu. .

## 04/SENIDEAK





# ESKERRIK BEROENAK

## urte luzez egindako lanagatik

Urte luzez lan isila baina ezinbestekoa egin dute, ikastolako komunitatearen alde etengabe arituz. Beti prest festa, ekimen eta ekitaldietan laguntzeko; beti irribarre batekin eta egiteko gogoz.

Zenbat txokolate eta bizkotxo prestatutakoak, zenbat txistorra erreta eta zenbat "tripa kontu" antolatuta! Ihoteak, San Tomasak, San Nikolasak eta beste hainbeste ospakizun ezin lirateke berdin ulertu zuen lanik eta presentziarik gabe.

Talde honek ederki erakutsi du zer den boluntario izatea: ikastolarekiko hurbiltasuna, maitasuna, dedikazioa eta konpromisoa. Baina horrez gain, talde-lanaren benetako esanahia ere irakatsi dute, elkarrekin arituz eta komunitatea indartuz.

Beti eskura, adi eta emankor. Zuen ekarpena handia izan da, eta arrasto sakona utzi du Haurtzaro Ikastolan.

Eskerrik asko bihotzez egindako guztiagatik. Gora zuek!

# Azken arnasa eman arte. Agur, Urmendi

**Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa (Urmendi) 1999an sortu zen herrian 0 18 urte arteko hezkuntza eskaintza bateratua eratzeko helburuarekin. Bidean hainbat zailtasun eta negoziazio izan ziren, eta azkenean Iturburu udal haur eskolak, Oiartzungo Udalak, Haurtzaro Ikastolak eta Koikile ta Ttipi ttapa haur eskola pribatuek osatutako proiektua garatu zen. Elizalde ikastetxea aldiz, bere erabakiz, kanpo geratu zen.**

Orain, ia 30 urteko ibilbidearen ondoren, Urmendi haur eskolaren proiektua amaitzeaz dago. Izan ere, 2024ko azaroan Hezkuntza Sailak udal haur eskolentzako dirulaguntzak etengo zituela jakinarazi zuen eta orduz geroztik egindako ahaleginek ez dute Urmendi bere horretan mantentzea lortu. Beraz, 2026ko irailetik aurrera, eta sorpresarik ezean, 0 2 zikloa Haurreskolak Partzuergoaren esku geratuko da, eta 2 urteko gelen titulartasuna Haurtzaro Ikastolak hartuko du. Horren ondorioz, orain arteko hezkuntza proiektua bi egitasmo pedagogikotan banatuko da. Horrenbestez, hau izango da Txinparten idatziko dugun azken artikulua.

Kalitatezko hezkuntza eta zaintza eskaini dugu, horretan saiatu gara zinez, baina helduzentristotik eta haurraren beharrak erdigunean jarri gabe hartutako erabakiek, bai eta interes politikoek ere, ekarri gaituzte egoera honetara. Haserrea, amorrua, tristura, pena, ezinegona..., denetarik sentitzen dugu, baina azken artikulua hau eskerrak emateko baliatu nahi dugu.

Duela 30 urte herritik eta herriarentzat sortutako hezkuntza proiektu eder honen sortzaileei gorazarre. Bestelako hezkuntza eredu posible zela sinetsi eta aurrera egin zenutenei gure eskerrik beroenak, bereziki urte luzez gidaritza lanean aritutako Izaskun Madariagari.





“Haurregatik eta haurrentzako egin dugu lana beti. Izugarri ikasi dugu haiekin, gozatu dugu bidean, eta proiektu honen parte izanaren harrotasunarekin bagoaz.”



Eskerrak, nola ez, hasiera hartako irakasle taldeari. Zuen bokazioa eta indarra sartu berri on eredu izan ziren, eta zuengatik ikasitako guztia gaur egun arte mantentzen saiatu gara.

Ezin aipatu gabe utzi urte luze hauetan bidelagun izandako Haurtzaro ikastola, eta bertako zuzendaritzako, idazkaritzako eta administrazioko langile guztiak. Kuku berezia Xabierri eta Cesarri, Urmendiko gure eskaerak hain azkar eta ongi betetzeagatik, eta bidean haurren eta guran irribarreak pizteagatik!

Gogoan ditugu proiektu hau altxor bilakatzeko bidean gurekin batera Urmendin lanean aritu eta beren aletxoak jarri duten irakasle guztiak.

3.500 haurretik gora eta ehunka familiekin egin dugu lan 27 urtean. Zuengandik jaso ditugu eskertza eta konfiantzaren seinale, detaileak politak; asko izan zarete egunerokoan lana erraztu duzuen familiak, denbora eta dedikazioa eskaini diguzuenak, bidelagun izan zaretenak.

Haurregatik eta haurrentzako egin dugu lana beti. Izugarri ikasi dugu haiekin, gozatu dugu bidean, eta proiektu honen parte izanaren harrotasunarekin bagoaz.



### ZER ESKAINTZEN DIEGU BESTEEI?

Elkarrekin hazi eta hezi gara haur hezkuntzan. Elkarrekintzan ikasi, talde lana sustatu, besteari lagundu... hezkuntza eta zaintza ditugu ardatz.

Elkarrekin eraikitzen eta partekatzen ditugun proiektuak sortzen ditugu ikasturtean zehar. Proiektu horien helburua ikasleak bere buruarengan konfiantza sustatzea da.

Horrez gain, adostu eta partekatutako helburu bat lortzeko, taldean aktiboki parte hartzen dute haurrek, azken batean, talde pertenezia sustatuz.



## ////// HH4



HH3ko ikasleok, hasieratik ikastolan eskaintzen diren proiektuetan murgiltzen hasten gara. Hh4koek, beraiek antolatutako zirku emanaldia ikustera gonbidatzen gaituzte. Ihoteetako emanaldia ikustera ere joaten gara, eta inauterietan gure lehenengo emanaldia eskaintzen dugu.

HH4ean aldiz, aurreko ikasturtean jasotako esperientzietatik, zirku prestatu eta eskaintzeaz gain, hh5koen ihote antzerkia ikustera joaten gara.



## 06/HATZAK BETE LAN

### ////// HH5



HH5ean, hau da, etapa bukaeran, ihote festaren barruan, antzerkia prestatu eta antzezten diegu hh4ko ikaskideei eta herriko petra lekuonako egoiliarrei. Horrez gain, lh6. Mailako kideek musikako eskoletan prestatutako musika emanaldia jasotzen dugu, baita lh2. Mailakoek sortutako itzalen antzerkia ere.

**Eman eta jaso, jaso eta eman, ez dago ezer ederragorik!**



# ////// LH1



## NEURRI NEURRIKOA!

Horixe da 5. unitatean Matematikako irakasgaiko lanketa ardatza. Jokoak jarri dio testuingurua egin dugun lanketari, izan ere, neurriak lantzen aritu baikara. Neurtzeko tresnak eta unitate egokienak aukeratu ditugu, neurriak estimatu ditugu, neurketak egin eta ateratako emaitzak ordenatu ditugu...

Unitatearen bukaeran, zer eta zertarako ikasi dugun hausnartu dugu. Ikasleen proposamena izan da petankan jolastea. Proposamena burutzeko, globoekin bolak egin ditugu Arte Hezkuntzan.

Baina nola jolasten da petankan? Hainbat ikaslek jolasa ezagutzen zuten, beraz, beraiek izan dira protagonistak eta haiek azaldu dizkigute arauak. Azkenik, taldeak egin eta jolasean aritu gara.

Bolak bota ondoren, metroarekin neurketak egin ditugu eta erregistro orrian talde bakoitzak bere emaitzak idatzi ditu eta guztion artean ondorioak atera ditugu.

Zein ondo pasa dugun! LH1ekoak Petankan jolasteko prest gaude!

## ////// LH2



### TREBEA NAIZ...



Unitate honetan, lanbideak landu ditugu LH2. mailan. Horretarako, gurasoak gonbidatu ditugu ikastolara eta haien lanbideen inguruan hitz egin digute. Oso interesgarria izan da bakoitzak bere lana azaltzea eta guk galderak egiteko aukera izatea. Orain, zuen txanda da, ea asmatzen duzuen irudietan agertzen diren lanbideak zein diren!



## ////// LH3



### AUTORE LIBURUA

LHko 3. mailako kideok Ehuntze espazioan izan ginen abendu hasieran arratsalde batez, Belen Morenoren erakusketan. Erakusketa ikusi, azalpenak entzun eta Idoia Beratarbideren eta Belen beraren proposamenak jarraituz tailer sortzaile interesgarria gauzatu genuen.

Ehuntzera gelaka joan ginen eta bakoitzak bere marrazkia sortu zuen, denak paper luze bakar batean, eta horrela artelan bakar bat osatu genuen.

Sortutako materialarekin Belen eta Idoiak autore liburu bat osatu zuten eta urtarrila bukaeran Idoia ikastolara etorri zen, gure liburua aurkeztu eta itzultzera.

Ez genuen espero norberaren marrazkietatik horrelako artelana sortuko genuenik! Luxua izan da esperientzia hau bizitzea. Ikusi nahi baduzue, gure artista liburu Liburu Txokoan dago ikusgai.

Eskerrik asko Belen eta Idoia LH3. mailako gaztetxoek partetik.




## ////// LH4

### NORK BERE BURUA EZAGUTU ETA MAITATU, BESTEETIKIN HOBETO HARREMANTZEKO

Ederra da ikastea, eta are ederragoa elkarrekin baldin bada; bizipenak partekatuz, elkar zainduz. Halaxe aritu gara gu azken hilabeteotan ere: geure burua ezagutzen, NI-tik GU-rako jauzia seguruagoa eta osasuntsuagoa izateko.

*Plastika* irakasgaiari, adibidez, geure buruari eta bikoteari adi-adi begira jarri eta autoerretratuak, bestelako erretratuak eta baita gorputz osoko irudiak egin ditugu, askotariko teknikak erabiliz, gainera. Eta, *Heziketa afektibo sexuala* tailerrean ere, gorputzen aniztasunaz hausnartzen aritu gara, nork berea maitatu eta elkar errespetatzearen garrantziaz.



Unitate honetan, gainera, harremanen gaia izan da ardatzetako bat, eta arreta berezia jarri diogu: erlaziograma bat osatu genuen hasieran eta, hainbat ariketa, dinamika eta jolas kooperatibo egin ondoren, beste bat egin dugu bukaeran, gure harremanen bilakaera ikusteko eta ondorioak ateratzeko. Eta, bukatzeko, harremanetan oinarritutako ipuinak sortu, irakurri eta oparitu dizkiegu LH3. mailako ikasleei.

Gustura aritu gara barrura begira, gure gorputza eta izaera ezagutzuz, eta baita taldean ere; hasieran esan bezala, norbera seguru eta gustura sentitzen denean errazagoa baita taldean modu egoki eta osasuntsuan aritzea.



## KRETAKO MUSIKA

Apirilaren 17an LHko 3. zikloko ikasleekin musikaren bitartez Kretara bidaiatzeko aukera izan genuen Landetxeko aretoan. Izan ere, 5. mailan musika arloan musika estiloak lantzen ditugun horretan, zorte izugarria izan genuen, folk musikak bere baitan duen aberastasunaren isla aurrez-aurre gozatu ahal izan baikenuen. Lira, danbor eta lautearen laguntzaz, Kretan zehar dantzarako musikaren lagin bat aurkeztu zuen Antonis Leontidis hirukoteak.

Guretzat oso bereziak ziren instrumentuez baliatu ziren eta, pieza bakoitzaren aurretik, bere nondik norakoak azaldu zizkiguten modu laburrean. Greziaz hitz egin ziguten, eskerrak Soinueneko kide batek euskarara itzuli zigun dena!



### BIZIPENAK GEROAREN ARGI



6. mailako ikasleok datorren urtean etapa berri bati ekingo diogu. Bide berri bati hasiera emango diogu, orain arte egindako ibilbideari jarraipena emanez. Urte askotan gure egunerokoaren parte izan den tokia atzean utziko dugu eta ilusioz beteriko aro berri bati ongietorria emango diogu.

Hala ere, aurrera begira jarri aurretik, beharrezkoa da une batez gelditzea eta elkarrekin bizi izan dugun guztia gogoratzea. Lehenengo egunetako lotsak eta urduritasunak, lagun berriak egiteko momentuak, gelan eta jolastokian partekatutako barre algarak, txangoetan bizitako abenturak, jaialdi eta ospakizun bereziak, talde-lanak edota egun arruntetan sortutako ustekabeak gure oroimenean geratuko dira betirako. Horiez gain, elkarri lagundu diogun unek eta elkarrekin partekatutako esperientziak gure arteko loturak sendotu dituzte.

Bizipen horiek guztiak ez ditugu ahaztu nahi eta, horregatik, gure oroitzapenak irudien bidez islatu eta "argazki" bihurtu ditugu "Bizipenak geroaren argi" izenburuko proiektuaren baitan. Irudi bakoitzaren atzean une berezi bat dago: barre bat, adiskidetasun keinu bat edo bihotzean gordeko dugun bizipen ahaztezina.

Etapari bati agur esango diogu, baina bertan ikasitakoa eta bizitakoa beti eramango dugu gurekin. Aurrera goaz!

# ////// DBH1

## EGOKITU BESTEEI, KIROLAK EGOKITU

Izenburu honekin martxan jarri dugu kirol egokituen unitatea. Urte asko daramazkigu ikastolan gai hori lantzen eta aurten, Osasun Fisiko eta Emozionalaren arloan ikuspegi zabalago bat ematen saiatu gara.

Arloak emozioak egokitu eta lantzea eskatzen du. Baita ezberdintasunaren aurrean hausnarketa egitea ere.

Egia da, hizkuntzaren erabileran aldaketa bat izan dela, izan ere, kontzeptu berriak aniztasunak azaleratzen ditu, bai eta gizarteak gai honen inguruan duen erantzukizuna ere. Horrez gain, kontzeptuaren bilakaeraren isla ere bada, "desgaitasun" deitzetik "aniztasun funtzionala" deitzera igarotze hori.



Gure gizarte honek aniztasuna errespetatzen du, baina puntu bateraino, onarpen maila aniztasunaren definizioak baldintzatzen eta mugatzen baitu. Marko honetan, ederra edo osasuntsua bezala definitu diren muga horietan sartzen ez diren pertsonak, inperfekzioaren isla izango dira.

Hori kontutan izanik, eta hausnarketan pisua jarritz, kirol egokituak landu ditugu: slalom, boleibol, goalball, baskin eta txikorta. Desgaitasun motak landu ditugu: Autismoa, adimen urritasuna, urritasun fisikoa, entzumen urritasuna eta ikusmen urritasuna. Kirolak egokitu egiten dira bakoitzaren egoerara, eta hori berritzailea egiten da adin honetan.

Ondoren, fitxa baten bidez hausnartu da gaia. Nola sentitu zara? Zein zailtasunekin topatu zara?

Zein zailtasun izan ditzake zuk irudikatu duzun desgaitasuna duen pertsonak?

Saioak amaitu dira eta oparoa izan da emaitza, itxaropena sortu zaigu, ikasitakoa eta ikusitakoa besteei egokitzen ikasteko balio izan digu.


## GAZTELANIA ARLOAN

DBH 1. mailan, Gaztelania arloan, publizitatean erabiltzen den hizkuntza landu dugu. Hori oinarritzat harturik eta ikasitakoa aplikatuz, ikasleek beraien kartelak sortu dituzte Haurtzaro Ikastolako matrikulazio kanpaina bultzatzeko helburuarekin. Zer iruditzen?



**INGELES ARLOAN**

DBH2n, ingeles arloan, "The plot, the poem and the play" izeneko unitatea landu dugu. Besteak beste, narrazio laburrak idazten praktikatu dugu. Halaber, poesiaren inguruko hainbat alderdi landu ondoren, geure poema propioak sortu ditugu. Hona hemen horietako batzuk:



## ////// DBH3



### AMUARRAINAREN DISEKZIOA

Biologia eta Geologia arloan, gure gorputzak nola funtzionatzen duen ulertzen saiatu gara. Horretarako, gorputzeko aparatuak aztertu ditugu: nola osatzen diren eta bakoitzean ager daitezkeen gaixotasunak landu ditugu. Horrez gain, ikasitakoa hobeto ulertzeko, kartulinazko maketa politak ere egin genituen.

Horrekin konformatu beharrean, pixka bat harago joatea erabaki genuen: arrainen anatomia aztertzea. Horrela, zientzialari rolean jarri eta laborategian amuarrainen disezioak egin genituen. Hasieran pixka bat arraroa egin zitzaigun, baina berehala hartu genion gustua!

Besteak beste, digestio-hodia, hegatsak, giltzurrunak, mingaina eta begiko kristalinoa behatu genituen. Eta onena, igeri-maskuria lehertu gabe ateratzea lortu genuen!


Oso gustura aritu ginen lanean, eta esperientzia honek asko erakutsi digu. Nork daki... agian etorkizunean baten bat zirujau bihurtuko da!



### KULTURA KLASIKOA

Kultura Klasikoan, besteak beste, antzinako Greziako eta Erromako artea izan dugu aztergai. Egindako maketa hauek zirku erromatarra, tenplua, hiriaren orientazioa, antzokia, foroa eta akueduktua bezalako eraikinetan oinarritzen dira. Argazkietan ikusten da aipatutako eraikinak gogoz eta sormenez landu dituztela, betiere xehetasun guztiak zainduz.





### ////// DBH4

Ingeleseko 2. unitatean, XX. mendeko fikziozko narrazio historikoak sortu ditugu. Horretarako, gertaera historikoak ikasteaz eta ikertzeaz gain, fikziozko narrazio historiko baten ezaugarriak identifikatu ditugu, gero gure narrazioetan aplikatzeko.

Narrazio hau Gernikako Bonbardaketari buruzkoa da. Gertaera historikoa ahalik eta fidelen islatzen saiatu naiz, baina fikziozko elementuak ere txertatu ditut; esaterako, pertsonaiak eta haien ezaugarri psikologikoak, zentzumenekin lotutako xehetasunak, eta testuinguru historikoko detaileak.

## WE ARE STILL ALIVE

“Knock, knock, knock...”

It was my friend Nerea asking my mum if we could go out to play in the field and see how they prepared tomorrow’s market. Although I’m already 12, I still like to see how excited farmers get when market day approaches, especially tomorrow’s one, April 26 because it is the day in which the year’s biggest and most famous market is celebrated.

“Come on Miren, hurry up! Nerea is waiting for you” mum said.

“I’m coming! I won’t be late, I promise, tomorrow I want to go to the market”. I replied and we went out together happily.

After spending the whole afternoon with Nerea, I returned home to find out that dinner was excellent. A warm, liquid, yellow soup was waiting for me, so I ate it and went directly to sleep as I wanted the following day to arrive.



So when it did, it directly turned into the best day of my life. Gernika's streets were completely wonderful, colourful, and a lot of different products could be seen beautifully arranged with ropes and decorated carefully. However, little did I know that the best day in my life would turn into the worst in seconds.

Weird noises were heard from the distance and all of a sudden, several black and scary planes were flying over Gernika. Not only that, but they also suddenly threw bombs and other weapons that set Gernika on fire.

It looked like a horror movie: black sky, blood all over the streets and screams. I was in shock and couldn't believe what was happening, so I decided to look for my family. Mum found me first, and told me to run as fast and as far as I could to the forest, that they wouldn't find me there and that I would be safe. So I just did that. She followed me shouting, so that I knew that she was still with me, but it didn't last long until I



he was part of the Basque army that was created in 1936 in Gernika and we left his last bit of life when we burned his body under a tree near the town's church. Then it was when I realised that mum wanted me to go to that tree, so I did it, but on my way, my eyes couldn't believe what they were seeing: human body pieces mixed with animal ones, not even one single thing you could easily identify...It was chaos.



All of a sudden I saw it. Everything was destroyed except for one tree. I don't know if my dad's soul protected it, maybe nature did it. I don't know who or what but I instantly knew that it was trying to tell us something. He was still

couldn't hear her anymore. I turned my head to see if she was still there, but she wasn't. I panicked and fell to the floor instantly like a weak feather.

All I could see was black and I heard someone's whistles, a really soft and warm one. Suddenly, a light appeared and that voice became louder. It was mum's voice, I recognised it. She was trying to say something but I could barely understand it. Something like "Dad. Daddy is the hope. Still alive, nature returned him to life".

At the beginning I didn't understand the meaning of it. My dad had died 6 months before at war, because

alive and Gernika and all the Basque Country would grow stronger than ever.

No Hitler, no Franco, no one could ever make us something like that again because Euskadi was still alive, ready to fish, ready to survive against anyone who wanted us to die. Germans thought they would make us weaker, but we've become stronger.

**Nahia Iturain Aramburu**  
DBH 4A

# Argazki-albuma



**IHOTEA**



**INAUTERIAK**





# IKASTOLA EGUNA



# Mendi gailurrean

Kaixo, euskararen maitale:

Duela lau urte, mendiaren magalean geunden, lokarriak lotu eta bideari ekin genion. Orain, atzera begiratzean, utzi ditugun arrastoak ikus ditzakegu: arrasto politak, irriak, algarak, Teknologia gelako elkarrizketa sakonak, egindako pankartak...


Ederrak izan dira elkarrekin bizi eta antolatu ditugun une eta ekintza guztiak. Mendi tontorretik iparraldera begiratuta, 24. Korrika ikus dezakegu, Euskararen eguna ageri da mendebaldean, ekialdean JUUL kanpaina, lhoteak hegoaldean....

Besteak beste, pozez gogoratuko ditugu beti laguntza eskatu diguten euskararen lagunak, esate baterako, Olentzero edota Argitxo, kriseilua beti pizturik irribarre batekin ahoan. Beti bidean aurrera. Txikitan Argitxoren paxintxiak irrikaz itxaroten genituen; azken 4 urteetan, guk zabaldu ditugu besoak, eta besarkatu euskararen mundura sartzen ari diren txiki guztiak.

Txorien antzera, Eskuttuneko uneak kabi goxo eta babestu izan dira guretzat. Baina orain, hegoak zabaldu eta hegaldiari ekin behar diogu. Euskararen arranoak gara eta harro gaude horretaz.



“Euskararen arranoak gara: elkarrekin egindako bidea bihotzean gordeta, hegoak zabaldu eta hegaldi berriari ekingo diogu.”





Bidaia guztiak iristen dira amaierara, ibilbide guztiek dute beren gailurra, azken txanpa. Masailean malko bat edo besterekin agurtuko dugu ikastola, irri malkoak eta hunkitutako lagun kuttunen besarkadekin. Hori delako Eskuttun, irribarre bat, ahoan zapore ona uzten duen postrea, Korrikako abesti bat, besarkada beroena. Hemen abestutako abesti, egindako aurkezpen, ipuin kontaketa, kartel eta kanpaina guztiak beti gure oroitzapenetan gordeko ditugula jakinik, lasai joan gaitezke.

Aurten guri dagokigu agur esatea. Argi dugu ondorengoei lekukoa pasa ondoren, guk bezainbeste maiteko dutela euskara, eta indarberrituta iritsiko direla gailurrera, aurreko guztiok egin dugun bezala.

Bidea eraikitzen eta deskubritzen jarraituko dugulako, bihotzez,

DBH4ko ikasleak.



# TTIKIENAK ETA HELDUENAK

*elkarrekin  
komunitatea  
eraikiz*



“Beraz, jarrai dezagun gure artean harremana sustatzen, elkar zaintzen, elkarrengandik ikasten eta lokera berriak eraikitzen.”

Helduek ttikiei bizitzarako funtsezkoak diren balioak transmititzen dizkiete. Gure ikastolaren lema bizitzarako hezkuntza denez, Haur Hezkuntzatik hasi eta ikastolan bukatu arte bizitzarako balioak etengabe lantzen aritzen gara. Eta bizitzarako balioez norbaitek baldin badaki, Oiartzungo Petra Lekuonako egoiliarak dira. Petra Lekuonara joaten garen bakoitzean eskuzabaltasunez hartzen gaituzte, eta noski guk ere halaxe hartzen ditugu gurera etortzen direnean.

Ikasturtean zehar hainbat bisita egiten dizkiogu elkarri. San Nikolasetan Petra Lekuonara joaten gara beraiekin kantatzera. Neguko oporretan ere, gabonetako abestiak kantatzera hurbiltzen gara. Ihoteetan beraiek etortzen dira ikastolara HH5 urtekoek egiten duten lhoteen inguruko antzerkia ikustera eta antzerki bera beraien egoitzan egiten dugu mugitzeko zailtasunak dituzten egoiliarrekin konpartitu ahal izateko. Inauterietan berriz, ikastolako goizeko festan ere gurean eduki genituen. Urtarrilean akuariumeko langileekin batera ikastolara etorri ziren aurkezpen bat egitera. Santa Agedan beraiengana hurbildu ginen kantatzera. Xanistebanetan berriz, gure ikasleak euskal dantzak dantzatzera joaten dira beraien egoitzara.

Elkarrekintza asko eta helburu garbia; parte garen Oiartzungo komunitatea elkarrekin bultzatzea eta denon artean eraikitzen jarraitzea.

Beraz, jarrai dezagun gure artean harremana sustatzen, elkar zaintzen, elkarrengandik ikasten eta lokera berriak eraikitzen.



“Elkarrekintza asko eta helburu garbia; parte garen Oiartzungo komunitatea elkarrekin bultzatzea eta denon artean eraikitzen jarraitzea.”



# Korrikaren hasiera Atharratzen



Tipi-tapa,  
tipi- tapa,  
KORRIKA!

Martxoaren 19an, Eskuttuneko DBHko ikasleok egun berezia bizi izan genuen. Goizean goiz, gure kamiseta edo sudadera jantzi, autobusa hartu eta Atharratzera abiatu ginen, Korrikaren hasierako giroa bertatik bertara ezagutzeko asmoz. Bidaia osoan ilusioa eta gogoa nagusi izan ziren, denok irrikaz geundelako egun hura bizitzeko.

Atharratzera iritsi ginenean, jendez eta euskaraz betetako giro aparta aurkitu genuen eta batzuek ezarritako “muga” horren bi aldetan hizkuntza bera hitz egiten dela argi ikusi genuen. Euskal Herriko txoko askotatik etorritako pertsonak elkartu ginen bertan, ezagunak, elkartrukean ezagututako ikasleak, irakasle ohiak, jende famatua... eta horrek are bereziago



bihurtu zuen eguna. Korrikaren hasierako ekitaldiak emozio handia sortu zigun; euskararen aldeko indarra eta elkartasuna nabarmen sentitu genituen, arranoaren hegaldiarekin bat egiten ari ginen.

Eguerdian ibai ertzean bazkaldu genuen Eskuttuneko kide guztiok elkarrekin, giro ezin hobean. Barre egiteko, hitz egiteko eta egunaz gozatzeko aukera izan genuen, bizitzen ari ginen uneaz oso kontziente eta zoriontsu. Arratsaldean, ekitaldia ikusi eta bakoitzak nahi izan zuen beste egin zuen korrika; "tipi-tapa, tipi tapa, KORRIKA" oihuka. Bizitako uneez gozatu ondoren,

autobusa hartu eta etxerako bidea egin genuen, batzuek une berezienak birgogoratzuz, beste batzuek abestuz eta bakar batzuk isilik eta ortzimugara begira bizitakoa liseritu asmoz.

Egun berean itzuli ginen eta Atharratzen bizitakoak oroitzapen ederra utzi zigun gure bihotzetan. Euskararen aldeko festa handi baten parte izan ginen, eta ilusioz, emozioz eta gogoz beteriko eguna izan zen guretzat. Zalantzarik gabe, luzaroan gogoan izango dugun esperientzia izan da.



# MUGIMENDUAN HEZI, JOLASEAN HAZI

# Muittu! (Jolas Hezi) eta Multikirola

Ikastolako eskolaz kanpoko ekintzak aisialdia betetzeko espazio hutsak baino askoz gehiago dira. Haurtzaro ikastolan, kultura zein kirol jardueren eskaintza zabala dugu eta parte hartzen duten ikasleen kopurua ere handia da.

Oraingoan, kirol eskaintzan eta bereziki Muittu! eta Multikirola programak hartuko ditugu hizpide.

Haurren garapen integrala sustatzeko aukera paregabea dira, eta horixe da Muittu! (JolasHezi) eta Multikirolaren oinarrian dagoen filosofia.

LH2ko ikasleei zuzendutako Muittu! (JolasHezi) jarduera Euskal Herriko ikastolen hezkuntza-ikuspegiarekin bat datorren aisialdi hezitzailearen ereduari oinarritzen da. Jolasa da haurrek mundua ezagutzeko duten tresna naturalena, eta, horregatik, saioetan jolasa erabiltzen da ikaskuntza, harremanak eta garapen pertsonala sustatzeko.

Jolasaren bidez, haurrek mugimendu-trebetasunak lantzeaz gain, taldean aritzen, arauak errespetatzen, gatazkak kudeatzen eta emozioak adierazten ikasten dute. Adin hauetan, garrantzitsua ez da emaitza edo errendimendua, parte-hartzea, gozamina eta esperientzia aberasgarriak bizitzea baizik.

LH3tik LH6ra, berriz, Multikirolak hartzen du protagonismoa. Etapa honetan, haurrek hainbat kirol eta jarduera fisiko ezagutzeko aukera dute: talde-kirolak, atletismoa, herri-kirolak, koordinazio-jolasak, erronka kooperatiboak eta beste hainbat proposamen. Askotariko jarduera horien bidez, oinarrizko trebetasun motorrak garatzen dituzte eta etorkizunean edozein kirol praktikatzeko oinarri sendoak eraikitzen dituzte.

Hala ere, Multikirolaren helburua ez da kirol jakin batean espezializatzea. Aitzitik, jarduera fisikoarekiko atxikimendua sustatu nahi da, haurrek mugimenduarekin lotura positiboa eraiki dezaten. Horretarako, dibertsioa, parte-hartzea eta talde-giroa jartzen dira erdigunean.



“Garrantzitsua ez da emaitza edo errendimendua; parte-hartzea, gozamina eta esperientzia aberasgarriak bizitzea baizik.”

Muittu! (JolasHezik) eta Multikirolak hainbat balio partekatzen dituzte: elkarlana, errespetua, inklusioa, ahalegina eta autonomia. Saio bakoitzean haurrek ikasten dute denek dutela lekua taldean, bakoitzak bere erritmoa eta gaitasunak dituela, eta elkarrekin aritzeak esperientzia aberatsagoa bihurtzen duela.

Gaur egungo gizartean, non pantailen presentzia gero eta handiago den eta mugimendurako aukerak askotan mugatuagoak diren, bereziki garrantzitsua da haurrei jardura fisikoarekin lotutako esperientzia positiboak eskaintzea. Horrek ez du soilik osasun fisikoan eragiten; ongizate emozionala, autoestimua eta harreman sozialak ere indartzen ditu.

Horregatik, gure ikastolan Muittu! (JolasHezi) eta Multikirola ez ditugu soilik kirol edo jolas jardueratzat hartzen. Hezkuntza-proiektuaren parte dira. Haurrek korrika egiten dute, jauzi egiten dute, jolasten dira eta barre egiten dute; baina, aldi berean, pertsona gisa hazten dira, elkarbizitzen ikasten dute eta bizimodu aktibo eta osasungarri baten oinarriak eraikitzen dituzte.

Azken batean, hezteko modu asko daude. Guk sinesten dugu jolasak eta mugimenduak bide aparta eskaintzen dutela horretarako. Izan ere, jolasean ikasten da, eta mugimenduan hazten gara.

10/OIARTZO

# Artikutza



Urteak daramatza Oiertzo Ikastolak Artikutzarako irteerak antolatzen, baina esperientzia horiek ez dira ohiko bisita hutsak: ikasgelatik kanpo ikasteko aukera paregabeak dira.

Martxoaren 18an, oporren bezperan, lehen mailako 43 ikaslek naturgune honetara egin zuten irteera. Hala ere, egun hartako esperientzia haratago joan zen; izan ere, oraingoan ikasleek aukera izan zuten zuzenean ikertzaile baten lanean aritzeko. Muturluzea edo ur-satorra (*Galemys pyrenaicus*) aztertzen ari den doktoradutzako ikasle batekin batera egin zuten bisita, eta horrek balio erantsi nabarmena eman zion jardunaldiari.

Ikasleentzat, halako irteerek testuliburutik haratago doan ezagutza eskaintzen dute. Ikasgelan ikasitakoa testuinguru erreal batean kokatzeko aukera dute, eta, aldi berean, zientziaren funtzionamendua bertatik-bertara ezagutzen dute: galderak egitea, behaketa, datuen interpretazioa eta ingurumenarekiko kontzientzia garatzea.



Ikasgelan ikasitakoa testuinguru erreal batean kokatzeko aukera dute, eta, aldi berean, zientziaren funtzionamendua bertatik-bertara ezagutzen dute: galderak egitea, behaketa, datuen interpretazioa eta ingurumenarekiko kontzientzia garatzea.


Muturluzearen kasua adibide argigarria da. Iberiar penintsulako espezie endemikoa izanik, bere biziraupena zuzenean lotuta dago ibaietako uraren kalitatearekin. Ikasleek ulertu ahal izan zuten nola espezie baten egoerak ingurumenaren osasunari buruzko informazio baliotsua ematen duen. Era berean, populazio txikia eta beheranzko joerakoa izateak dakartzan erronkez jabetu ziren, biodibertsitatearen zaintzaren garrantziaz hausnartuz.

Bestetik, Artikutzako presaren irekierak eragindako aldaketak aztertzei aukera izan zuten. Natura bere bidea berreskuratzen ari dela ikusi zuten zuzenean: lehen urpean zeuden eremuak agerian geratu dira, eta pixkanaka biodibertsitatez betetzen ari dira. Prozesu hori behatzea ikaskuntza esperientzia aberasgarria bihurtu zen, liburuetan azaltzen diren kontzeptuak errealitatean nola gauzatzen diren ikusteko aukera emanez.

## 10/OIARTZO

Halako jarduerak, gainera, ikasleen jarrera aktiboa sustatzen dute. Ez dira entzule hutsak; ingurunea aztertzen duten behatzaile bihurtzen dira, eta askotan, lehen aldiz, zientziarekiko interesa eta jakin-mina pizten zaie.

Eguraldia lagun, ikasteko ez ezik, naturaz gozatzeko aukera ere izan zuten. Baina, batez ere, egun horretan eskuratutakoa ez zen soilik ikusitakoa izan: ikasteko modu bat barneratu zuten, galderak egiten eta ingurua ulertzen lagunduko diena.



# DBH 4.mailakoen agur bertsoa



Jarduera azterketa  
eta etxeko lan pilla  
Jolas garai guztietan  
salduz patata tortilla  
Kurtso amaierarako  
Iritsi naiz erdi ila  
baina barre momentuak  
ere egon dira mila  
Bronka batean bezala  
lagunen barre isila  
kurtso perfektu ez baina  
guk bai kurtso biribila  
Eta hementxe gabiltea,  
Eskaera baten bila,  
hurrengo urtea ere,  
berdin etorri dadila.

Doinua:  
Habanera



**Haurtzaro Ikastola** \*  
*bizitzarako hezkuntza*

**DBH4 - 28. promozioa**  
**2026**